Laugarren.- 2018ko ekainean aurkeztu zitzaizkien herritarrei udalak Jose Mari Iparragirreren jaiotzaren berrehungarren urteurrena ospatzeko zuen asmoa. Helburuak aurkeztu ziren, bai eta proiektu partehartzaile bat izateko asmoa ere, Udalak berak aurkeztutako proposamenak eta urretxuarrenak konbinatuko zirela azaldu zen; lan profesionalak boluntarioekin; udalerrian gauzatuko ziren proposamenak eta kanpoan egingo ziren beste batzuk, horrela Urretxuren izena ezagutzera emanez (Eman ta zabal zazu).

Hainbat kolektiboren proposamenak jaso ondoren, bilerak egin dira, eta proiektuak ordenatu eta multzokatzen saiatu dira, horrela, proiektuak garatu, aurrekontuan sartu eta egutegian ezarri ahal izateko. Mota hauetako proiektuak daude: Komunikazioa, musika, antzerkia, zinema, literatura, haur hezkuntza, turismo eta Urretxutik Mundura izenekoak.

Bostgarren.- Momentu honetan, Udalak abian jarri ditu komunikazio esparruko bi proiektu:

1.- Irudi propioa eta logoa: Logo bat sortu da proiektuak aurpegia izateko, eta herrian zabaltzeko: saltokiak, paper ofizialak....

2.- Web orrialdea eta sare sozialak: Web orri horrek Iparragirre buruzko era guztietako erreferentziak ditu, baita hainbat material ere, kontsulta irekikoak. Gainera, webgune honek Iparragirre2020 proiektuari buruzko informazio guztia jasotzen du, eta horren menpe daude Twitter eta Instagram kontuak, Urretxuarrek proiektuan eman daitezkeen aldaketa eta nobedade guztien berri izateko sortuta.

Jarduera horiek gauzatzeko aurrekontu zenbatetsia 19.150 euro da.

Seigarren.- Azaldutako arrazoieta oinarrituta, proiektuaren berezitasuna kontuan hartuta, hau da, ezin dela jaso ohiko dirulaguntza lerroen barruan, uste dugu 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 20.3.c) artikuluan aipatzen dituen interes publikoko arrazoiak ematen direla Urretxuko Udalarari 10.000 euroko diru laguntza emateko zuzenean, "Iparragirre2020: Urretxutik Mundura" proiektua antolatzeko eta garatzeko xedez.

tiempo.

Cuarto.- En junio de 2018 se presentó a la ciudadanía la intención de celebrar el bicentenario del nacimiento de Jose Mari Iparragirre. Se expusieron sus objetivos generales y la intención de que fuera un proyecto participativo, que combinase propuestas que surgieran desde el consistorio con las presentadas por los y las urretxuarras; trabajos profesionales con voluntarios; propuestas que se llevaran a cabo en el municipio con otras que se realizaran fuera dando a conocer así el nombre de Urretxu (Eman ta zabal zazu).

Una vez recibidas las propuestas de los distintos colectivos, se han realizado reuniones a fin de ordenar y agrupar los proyectos para poder así desarrollar, presupuestar y calendarizar los mismos. Se han definido proyectos de comunicación, música, teatro, cine, literatura, educación infantil, turismo y otros denominados Urretxutik Mundura.

Quinto.- En este momento, el Ayuntamiento ya ha puesto en marcha dos de los proyectos del área de comunicación:

1.- Imagen propia y logo: Se crea un logo que permite dar cara al proyecto y su difusión a nivel local: comercios, papelería oficial...

2.- Página web y redes sociales: Una página web con todo tipo de referencias sobre Iparragirre, además de distintos materiales de consulta abierta. Además se recoge toda la información sobre el proyecto y de ella dependen las cuentas de Twitter e Instagram creadas para mantener informada a la ciudadanía de Urretxu de cualquier cambio o novedad en el proyecto.

El presupuesto estimado de dichas actuaciones asciende al importe de 19.150 euros.

Sexto.- Por todo lo expuesto, dado el carácter singular del proyecto, que no puede contemplarse dentro de las líneas ordinarias de subvención, se estima que existen razones suficientes y de interés público para que, en aplicación del artículo 20.3, c) de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se conceda de manera directa al Ayuntamiento de Urretxu una subvención de 10.000 euros para financiar la organización y desarrollo del Proyecto "Iparragirre2020: Urretxutik Mundura".



Urretxuko udala



Zapigarrena.- Ondorioz, aipatu diru laguntzaren baldintzak eta terminoak arautzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Urretxuko Udalak adostu dute **LANKIDETZA HITZARMEN** hau sinatzea klausula hauen arabera,

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da lankidetzaren esparru bat ezartzea eta arautzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urretxuko Udalaren artean, "Iparragirre2020: Urretxutik Mundura" proiektua antolatzeko eta garatzeko xedez, proiektu horren komunikazio jarduerak finantzatzuz, 2019. urtean garatzen direnak eta bosgarren azalpen atalean zehazten direnak.

Bigarrena.- Urretxuko Udalaren konpromisoak.

Urretxuko Udalak konpromisoa hartzen du bosgarren azalpen atalean zehazten diren "Iparragirre2020: Urretxutik Mundura" proiektuaren komunikazio jarduerak gauzatzeko.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromisoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Iparragirre2020: Urretxutik Mundura" proiektuaren aipaturako komunikazio jarduerak finantzatzeko konpromisoa hartzen du; horretarako, 10.000,00 euro jarriko ditu gehienez ere, aurrekontuko 1.0110.100.461.01.OX.2019 kontu sailaren kargura.

Laugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1. Gastu hautagarriak dira jarduerak zuzenean dakartzanak, langileen gastuak barne.
2. Bidaien gastuen gehieneko tarifak bat etorriko dira Eusko Jaurlaritzaren 16/1993 Dekretuak, otsailaren 2koak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, eta dekretu hori aldatzen duten 267/2000 Dekretuak, abenduaren 19koak, eta 121/2006 Dekretuak, ekainaren 13koak, ezarritako baremoarekin.
3. Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, aplikatuko da, adierazitakoaz gain, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 30. artikuluan ezarritakoa, nahiz eta egindako gastutzat hartuko den, ez bakarrik justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena, baizik eta baita diru laguntza jaso duen entitate onuradunak oraindik ordaindu gabe duena ere, baldin eta gastu hori justifikatuta badago

Séptimo.- En consecuencia, con la finalidad de regular las condiciones y términos de la citada subvención, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urretxu acuerdan formalizar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN conforme a las siguientes,

CLÁUSULAS

Primera. Objeto.

El objeto de este convenio es establecer y regular un ámbito de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urretxu para la organización y desarrollo del proyecto "Iparragirre2020: Urretxutik Mundura", mediante la financiación de las actividades de comunicación de dicho proyecto que se desarrollan en 2019 y que se detallan en el apartado expositivo quinto.

Segunda.- Compromisos del Ayuntamiento de Urretxu.

El Ayuntamiento de Urretxu se compromete a desarrollar las actuaciones de comunicación del Proyecto "Iparragirre2020: Urretxutik Mundura" detalladas en el apartado expositivo quinto.

Tercera.- Compromisos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La Diputación Foral de Gipuzkoa asume la obligación de apoyar la financiación de las citadas actividades de comunicación del Proyecto "Iparragirre2020: Urretxutik Mundura", mediante la aportación de la cantidad máxima total de 10.000,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1.0110.100.461.01.OX.2019.

Cuarta.- Gastos subvencionables.

1. Se considerarán gastos subvencionables aquellos gastos derivados directamente de la actividad a desarrollar, incluidos los gastos de personal.
2. Las tarifas máximas de los gastos relativos a viajes se ajustarán al baremo establecido por el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, del Gobierno Vasco, sobre indemnizaciones por razón de servicio, modificado por los decretos 267/2000, de 19 de diciembre y 121/2006, de 13 de junio.
3. En relación con los gastos subvencionables, además de lo indicado, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 30 de la Normal Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, si bien se considerará gasto realizado no sólo aquél que haya sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación determinado, sino también el que, estando pendiente de pago por la entidad beneficiaria de la subvención, se encuentre justificado mediante las



Urretxuko udala



dagozkion fakturen edo balio bereko frogagiren bidez.

4. Zeharkako zergak (BEZa, adibidez) ez dira inoiz diruz lagungarri izango berreskuratuz edo konpentsatzeko gai direnean.

Bosgarrena.- Ordaintzeko era.

Dirulaguntzaren ordaintzaren egingo da hurrengo klausulan aurreikusitako kontu zurigarria aurkeztu ondoren.

Emandako dirulaguntza zenbateko jakin baten moduan finkatzen da; beraz, onuradunak ordaindu beharko du diruz lagundutako jarduera osorik gauzatzeko behar den finantzaketaren diferentzia.

Seigarrena.- Justifikazioa.

Dirulaguntza zuzentzeko egindako jardueren kontu zurigarria aurkeztu behar da, 2019ko abenduaren 15a baino lehen, honako agiri hauek barne direla:

– Jarduketan memoria, zein jarduketa egin diren eta zer emaitza izan diren adierazita.

– Egindako jardueren kostua egiaztatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek biltzen dituena:

a) Zerrenda sailkatu batean jasota, jardueraren gastuak, bakoitzaren hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordaintzaren data.

b) Fakturak, edo merkataritzako trafiko juridikoan haien pareko frogak balioa edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan adierazitakoak; eta, behar izanez gero, ordaintzaren egiaztatzeak.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Eskatutako agiriak aurkeztutakoan, dirulaguntza ematen duen organoak beharrezkoak diren egiaztapenak egingo ditu. Egiaztapen horietatik ondorioztatuko balitz kostu subentzisionagarria txikiagoa izan dela emandako dirulaguntza baino, edo ez direla bete, osorik nahiz zati batean, dirulaguntza zuzentzeko ezarritako baldintzak edo dirulaguntzaren xedeak, orduan erakunde onuradunari jakinaraziko litzaioke hori, egiaztapenaren emaitzekin batera.

Zazpigarrena.- Indarraldia.

Lankidetzaren hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena

correspondientes facturas o documentos de valor probatorio equivalente.

4. No se considerarán gastos subvencionables los impuestos indirectos, como el IVA, cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.

Quinta.- Forma de pago.

El abono de la subvención se realizará previa presentación de la cuenta justificativa prevista en la cláusula siguiente

La subvención concedida tendrá la consideración de importe cierto, siendo por cuenta de la persona beneficiaria la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada.

Sexta.- Justificación

La subvención se justificará mediante la presentación, con anterioridad al 15 de diciembre de 2019, de una cuenta justificativa de las actividades realizadas, que contendrá:

– Una memoria de actuación, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

– Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

b) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

c) Una relación de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación de importe y su procedencia.

Una vez presentada la documentación requerida, se realizará por el órgano concedente la correspondiente comprobación. Si se dedujera que el coste subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida o que se ha incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma se comunicará tal circunstancia a la persona beneficiaria junto a los resultados de la comprobación realizada.

Séptima.- Vigencia.

El periodo de vigencia de este convenio será desde el momento de su firma hasta el 30 de diciembre de 2019, sin



Urretxuko udala



sinatzen den unetik hasi eta 2019ko abenduaren 30era bitartekoa izango da, baina 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 15era bitartean egindako ekintzak ere finantza daitezke hitzarmenaren kargura.

Zortzigarrena.- Entitate onuradunaren betebeharrak.

Entitate onuradunak ondoko betebeharrak bete behar ditu:

- a) Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.
- b) Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo dituen egiaztapenen mende jartzea, bai eta 4/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko legeriak ezartzen dituzten finantza kontrolen mende ere, diruz lagundutako jarduerak aurrera eramane eta gauzatzeari buruz eskatzen dioten informazio osagarri guztia eman.
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bitartekoak eskuratu dituen diruz lagundutako lanak finantzatzeko.
- d) 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 35. artikuluan adierazitako kasuetan, jasotako dirua itzultzea.
- e) Diruz lagundutako jarduerari lotutako agerpen publikoetan euskara erabiltzea.
- f) Lau urtez gordetzea diruz lagundutako jarduera egin dela eta jasotako funtsak ondo erabili direla egiaztatzen duten agiriak. Egiaztagiria aurkezteko epea amaitzen denean hasiko da lau urteko epe hori.
- g) Bermatzea komunikazio, argitalpen, programa eta abarretan, hizkeraren erabilera ez sexista.
- h) Eta oro har, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 13. artikuluan adierazten dituen betebeharrak betetzea.

Bederatzigarrena.- Beste laguntza eta diru laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Hitzarmen honek xedetat duen diru laguntza bateragarria da beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu –izan Estatukoa, izan Europar Batasuneko, izan nazioartekoa– eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderek.

perjuicio de que con cargo al mismo se financien actividades desarrolladas desde el 1 de enero hasta el 15 de diciembre de 2019.

Octava.- Obligaciones de la entidad beneficiaria.

La persona beneficiaria deberá cumplir las siguientes obligaciones:

- a) Destinar la subvención al fin para el que ha sido concedida.
- b) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por la Diputación Foral de Gipuzkoa, a las actuaciones de control financiero previstas en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, facilitando cuanta información complementaria le sea solicitada en relación con el desarrollo y ejecución de las actuaciones subvencionadas.
- c) Comunicar a la Diputación Foral de Gipuzkoa la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada.
- d) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo.
- e) Utilizar el euskera en las intervenciones públicas relacionadas con la actividad subvencionada.
- f) Conservar durante 4 años los justificantes de la realización de la actividad que fundamenta la concesión de la subvención, así como la aplicación de los fondos percibidos. El citado plazo computará a partir del momento en que finalice el periodo establecido para presentar la justificación de la subvención.
- g) Garantizar el uso no sexista del lenguaje en todas las comunicaciones, publicaciones, programas, etc.
- h) Y, en general, cumplir cuantas obligaciones se señalan en el artículo 13 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo.

Novena.- Compatibilidad con otras ayudas y subvenciones.

La subvención objeto del presente convenio será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.



Hala ere, diru laguntzaren zenbatekoak inoiz ez du diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko, ez berak bakarrik, ez beste subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera. Hori gertatuz gero, diruz lagundutako kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko da eta berandutza interesa exijituko da, 3/2007 Foru Arauaren, martxoaren 27koaren, 35.3 artikulua xedatutakoaren arabera.

Hamargarrena.- Hitzarmeneko baldintzak aldatzea eta beste laguntza batzuk eskuratzea

Diru laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, eta orobat, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako beste diru laguntza batzuk ere eskuratzuz gero, gerta liteke laguntza emateko ebazpena aldatzea.

Hamaikagarrena.- Hitzarmena desagitea

Gorabehera hauetakoren bat gertatzen bada, hitzarmena desagintzat emango da:

- a) Hilabete lehenago gaztigatu ondoren, sinatzaileek hitzarmena desagitea adosten badute.
- b) Bi aldeetako edozeinek ez baditu bere konpromisoak betetzen.

Hamabigarrena.- Itzultzea

Hitzarmen hau ez bada betetzen edo emandako diru zenbatekoa beste helburu batzuetarako erabiltzen bada, diru laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat joko da, erabat edo partez, eta jasotakoa osorik edo partez itzuli beharko da, dagozkion berandutza interesekin batera, hala agintzen baitute 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 35. artikuluan eta 24/2008 Foru Dekretuz, apirilaren 29koak, onartutako foru arau horren garapen erregelamendua 63. artikuluan eta hurrengoetan.

Hamahirugarrena.- Hitzarmenaren izaera

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auziak, azken batean, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan aurkeztu, argitu eta erabakiko dira.

Hamalagarrena.- Araubide juridikoa

Dirulaguntza hau ez da estatu laguntza Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunak 107.1 artikuluan ezartzen duen zentzuan: ez baitakar onurarik enpresa batentzat, eta ez baitie enpresa edo ekoizpen jakin batzuei laguntzen edo mesede egiten beste batzuen kaltetan; hori horrela, salbuetsita dago aipatu Itunaren 108.3 artikulua

No obstante, el importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada. En tal caso, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente, conforme a lo establecido por el artículo 35.3 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo.

Décima.- Alteración de las condiciones del convenio y concurrencia de ayudas

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, estatales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión.

Undécima.- Resolución del convenio

El presente convenio se resolverá cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

- a) Mutuo acuerdo entre las partes suscribientes, con un preaviso de un mes.
- b) Incumplimiento de los compromisos contraídos por cualquiera de las partes.

Duodécima.- Reintegro

El incumplimiento del presente convenio o la utilización para otros fines de la cantidad concedida dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y artículos 63 y siguientes de su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

Decimotercera.- Naturaleza del convenio

El presente convenio tiene naturaleza administrativa. Las cuestiones derivadas de este convenio serán, en última instancia, conocidas y resueltas por los juzgados contencioso-administrativos competentes.

Decimocuarta.- Régimen jurídico

La presente subvención no constituye ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no supone un beneficio para una empresa ni favorece a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras; por tanto, queda excluida del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.



Urretxu udala



ezarritako jakinarazpen prozeduratik.

Hitzarmen honetakoez gain, arau hauek aplikatuko dira: 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa; 24/2008 Foru Dekretuaren, apirilaren 29koaren, bidez onartutako foru arau horren garapen erregelamendua; eta 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa.

Herritarren Batzordearen aldeko irizpena kontuan hartuta, eta gaia bozkatu ondoren, honako hau erabaki da aho batez:

Lehenengo.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Urretxu Udalaren arteko lankidetzahitzarmena onartzea, "Iparragirre 2020 Urretxutik Mundura" proiektua antolatzeko.

Bigarren.- Alkateari ahalmena ematea horretarako behar diren agiri guztiak sina ditzan.

Gaiaren harira, alkate jaunak bigarren mendeurrenaren harira egin beharreko jardueren eta ekitaldien plangintzaren berri eman du. Ekitaldi horiek urtarrilean hasiko dira. Era berean, foru-aldundiekin izandako harremanen berri eman du.

6.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea-Gaztematika: atxikimendua.

Fidalgo andreak, Herritarren Batzordeko lehendakariak, Urretxu Udalak Gaztematikarekin bat egiteko egindako proposamenaren berri eman du. Udala

Además de lo dispuesto en el presente convenio, serán de aplicación la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su reglamento de desarrollo -aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril- y la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Ciudadanía, y sometido el asunto a votación, por unanimidad, se acuerda:

Primero.- Aprobar el Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Urretxu para la organización del proyecto "Iparragirre 2020 Urretxutik Mundura".

Segundo.- Facultar al Sr. Alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

Al hilo del asunto, el Sr. Alcalde informa de la planificación de las actividades y actos a celebrarse con motivo del bicentenario, actos que comenzarán en enero. Asimismo, informa de los diversos contactos mantenidos con las diferentes diputaciones forales.

6.- Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Gaztematika: adhesión.

La Sra. Fidalgo, presidenta de la Comisión de Ciudadanía, da cuenta de la propuesta de adhesión del Ayuntamiento de Urretxu a Gaztematika. Informa que este ayuntamiento



Urretxuko udala



2009an sortutako Haurrak eta Gaztematika Sustatzeko Sarearen parte dela jakinarazi du. Hala ere, 2019ko apirilaren 16an, 12/20019 Foru Dekretua onartu zen, Haurrak eta Gazteak Sustatzeko Erakunde arteko Sare berria – Gaztematika – Sortu zuena; horrela, sare horri aitorten juridikoko zuzkidura egin zaio, eta une honetan Urretxuko Udala sare horretara atxikitzea proposatzen da.

Azalpena amaituta, eta gaia bozkatu ondoren, honako hau erabaki da aho batez:

Bakarra.- Urretxuko Udala Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haurrak eta Gazteak Sustatzeko Erakunde arteko Sareari, Gaztematikari, atxikitzea.

7.- Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren Adierazpen Instituzionala: berrespena.

Alkate jaunak Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira egindako adierazpen instituzionala irakurri du. Herritarren Batzordeak proposatu du adierazpen hori, eta testu hau transkribatu da:

Azaroaren 25a (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) dela-eta, indarkeria mota honen egitura-izaera nabarmentzen dugu, eta gure konpromisoa agertu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorrira, berresten dugu

ya forma parte de la Red de Promoción de la Infancia y Juventud –Gaztematika, creada en el año 2009. No obstante, el 16 de abril de 2019 se aprobó el Decreto Foral 12/20019 por el que se creó la nueva Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y Juventud –Gaztematika, de manera que se ha dotado a dicha Red de reconocimiento jurídico, y en este momento se propone la adhesión del Ayuntamiento de Urretxu a dicha Red.

Finalizada la exposición, y sometido el asunto a votación, por unanimidad, se acuerda:

Único.- La adhesión del Ayuntamiento de Urretxu a la Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Gaztematika.

7.- Declaración institucional Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres: ratificación.

El Sr. Alcalde da lectura a la declaración institucional con motivo del Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, que ha sido propuesta por la Comisión de Ciudadanía, y cuyo texto se transcribe a continuación:

Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, reiteramos el carácter estructural de este tipo de violencia y manifestamos nuestro compromiso con la construcción de una sociedad libre de violencia contra las mujeres. Asimismo, en línea con el marco jurídico internacional,



Urretxuko udala



beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: **prebentzioa, hautematea, arreta, babesa, koordinazioa eta justizia**, arreta berezia jarrita biktimei eta bizirik atera diren pertsonen **erreparazioa** ematean.

Biktimei erreparazioarako printzipioak berekin dakar biktimak eskubide-urraketa bizi aurreko egoerara lehengoratzeko beharrezkoak diren ekintzak martxan jartzea. Indarkeria matxistaren biktimen kasuan, xedetzat hartzen da biktimaren bizi-baldintzak funtsean hobetzea, urratutako eskubideengatik erreparazioa jasota eta eragindako minetik berrezarrita. Era berean, ahalduzko-prozesua bultzatu behar da, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartu dezaten.

Tokiko gobernuek biktimei arreta eskaintzeko alorrean aitortuta dugun erantzukizuna eta eskumena gure gain hartzen dugu, gure herri eta hirietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak garelako. Politikarien eta teknikarien bultzada koordinatuarekin, tokiko erakundeen esku-hartzea funtsezkoa da erreparatzeko prozesuan, komunitateko bizitza berrezartzen laguntzeko eta biktimei erreparazio publiko eta soziala emateko, indarkeria matxistaren biktimen eta bertatik bizirik atera diren pertsonen inguru hurbilenean.

Horren ildotik, Berdinsareako (Berdintasunaren aldeko eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea) udaletako berdintasun-teknikarien lana oinarritzkoa eta balio handikoa da, udaletan ekintzarako orientazio eta irizpide komunak eskaintzeko, batez ere, udal txikienetan. Hain zuzen, erreparazioari dagokionez, Indarkeria matxistaren biktimei erreparazioarako tokiko ekintzen gida bat prestatzeko lanean ari dira, tokiko erakundeek indarkeria matxistaren biktimek ordaina jasotzeko duten eskubidea praktikan jarri eta zehaztu ahal izan

reafirmamos que es necesario plantear actuaciones en todos los planos de la intervención: **prevención, detección, atención, protección, coordinación y justicia**, haciendo hincapié en la importancia de la **reparación** a las víctimas y supervivientes.

El principio de reparación de las víctimas supone poner en marcha las acciones necesarias con el fin de devolver a la víctima al estado previo a sufrir la violación de sus derechos. En el caso de las víctimas de la violencia machista, se entiende que el fin es la mejora sustancial de las condiciones de vida de las víctimas a partir de la reparación de sus derechos violados y recuperación del daño causado. Así mismo, se ha de apoyar el proceso de empoderamiento que refuerce su capacidad y autonomía para superar la situación de violencia.

Los gobiernos locales asumimos la responsabilidad y competencia reconocida en materia de atención a las víctimas, por ser las instituciones más cercanas a las mujeres que sufren violencia machista en nuestros pueblos y ciudades. Bajo el impulso coordinado del personal político y técnico, la intervención local en reparación resulta clave para ayudar a la restitución de la vida comunitaria y la reparación social y pública en el entorno más cercano de las víctimas y supervivientes de la violencia machista.

En este sentido, el trabajo de las técnicas municipales de igualdad en Berdinsarea (Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la violencia hacia las mujeres) es fundamental y valioso para proveer a los ayuntamientos, especialmente a los de menor tamaño, de orientación y criterios comunes de actuación. En concreto, en el ámbito de la reparación, se trabaja en la elaboración de una Guía de Actuaciones Locales para la Reparación de las víctimas de Violencia Machista, para que las entidades locales puedan llevar a la práctica y concretar el derecho de reparación de las víctimas de



Urretxuko udala

dezaten, udal eskumenaren esparruan.

Tokiko gobernuek konpromiso politikoak betetzeko jardun nahi dugu, eta, horren bidez, indarkeria matxistaren modu guztiak desagerrarazten lagundu, honela:

- *Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarrita, euren beharizan eta eskariei entzunez eta arreta emanaz.*

- *Langile espezializatu eta kualifikatuak edukita, erreparazioaren ikusmoldeak, ikuspegi feministarekin.*
- *Erreparaziorako eta ahalduntzeko esku-hartze prozesu guztietan, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan eginez.*
- *Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparaziorako baliabideak egituratzeko, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat lehengoratuko dela eta urratutako eskubideak berrezarriko direla bermatzeko.*
- *Talde feministekin eta tokiko emakumeen elkarteekin modu estuan lankidetzan arituta, berdintasun-politikak eta ekintzak diseinatzeko, biktimei eta bizirik atera diren pertsonen arreta eta erreparazioari dagokionez.*
- *Era berean, dei egiten diegu herritar guztiei, udalerrri guztietan A25 dela-eta antolatuko diren salaketa- eta aldarrikapen-ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.*

Irakurketa amaituta, eta botoetara eramanda, honako hau erabaki da aho batez:



violencia machista, en el ámbito de competencia municipal.

Los gobiernos locales queremos actuar para cumplir los compromisos políticos, y con ello poder contribuir en la erradicación de todas las formas de violencia machista,

- *Poniendo los derechos de las víctimas en el centro de todo el proceso de atención, escuchando y atendiendo sus necesidades y demandas.*
- *Contando con recursos y personal especializado y cualificado, desde el enfoque reparador con perspectiva feminista*
- *Velando por la diligencia y celeridad en todos los procesos de intervención reparadores y empoderadores*
- *Coordinándose con todas las instancias implicadas, para articular los dispositivos de atención y reparación que garanticen la recuperación integral de las víctimas de violencia machista y la restitución de los derechos vulnerados.*
- *Cooperando estrechamente con las agrupaciones feministas y asociaciones de mujeres locales para el diseño de políticas de igualdad y actuaciones en materia de atención y reparación de las víctimas y supervivientes de violencia machista.*
- *Y así mismo, hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía para que participe activamente en los actos de denuncia y reivindicación que se desarrollen con motivo del 25N en todos los municipios.*

Finalizada la lectura, y sometida a votación, por unanimidad se acuerda:

akta



Urretxuko udala

Bakarra.- Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala berrestea. Adierazpen horren testua akordio honen azalpenean transkribatu da.

8.- 2019ko Euskararen Nazioarteko egunerako adierazpena.

Fidalgo andreak Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta egindako adierazpen instituzionala irakurri du. Herritarren Batzordeak proposatu du adierazpen hori, eta testu hau transkribatu da:

Jauzika dator euskara. Jauzika mendez mende. Jauzika egunez egun. Bihotzetik bihotzera jauzika. Eta, batez ere, ezpainez ezpain jauzika.

Bere eguna du gaur euskarak, Nazioarteko Eguna hain zuzen ere. Baina ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzen duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Jauzi egiten du euskarak egunaren mugez gaindi ere. Jauzi egiten du euskarak muga guztiez gaindi, gure ahoan bizi-bizi, gure belarrietan zernahitarako prest beti. Noranahiko euskara gurea, denona.

Zer genuke, bestela, gaur ospatzeko?

Bide luzea egina du euskarak, eta harekin batera euskal hiztunok eta euskaltzaleok, etorkizuna irabazteko etengabeko ahaleginean. Bide luzea du egina euskal gizarteak euskara plaza guztietara duintasun osoz eramateko. Eta asko lortu da. Jardunak berak erakutsi digu, erakusten digu egunero, ezinbestekoa dela bide horiek, gauzak egiteko moduak, etengabe eguneratzea, eraberritzea, irudimenez biziagotzea. Eta argi



Único.- Ratificar la Declaración institucional Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, cuyo texto se ha transcrito en el exponiendo de este acuerdo.

8.- Declaración institucional Día Internacional del Euskera 2019.

La Sra. Fidalgo da lectura a la declaración institucional con motivo del Día Internacional del Euskera , que ha sido propuesta por la Comisión de Ciudadanía, y cuyo texto se transcribe a continuación:

El euskera viene saltando de siglo en siglo. De día en día. De corazón en corazón. Y, sobre todo, de boca en boca.

El euskera celebra hoy su día, más concretamente su Día Internacional. Pero sabemos muy bien que lo que hoy celebramos los y las vascohablantes y la ciudadanía vasca en general no se circunscribe a los límites de un solo día. El euskera salta también esos límites. Salta por encima de todas las fronteras, pleno de vitalidad en nuestros labios, siempre bienvenido en nuestros oídos. Nuestro euskera, apto para todo, ese euskera que a todas y todos nos pertenece.

¿Qué otra cosa podríamos celebrar hoy?

El euskera ha recorrido un largo camino, y, con él, la comunidad de vascohablantes y euskaltzales, en un esfuerzo sostenido para ganar el futuro. La sociedad vasca ha recorrido un largo camino para llevar al euskera, con toda dignidad, a todos los ámbitos y lugares. Y mucho es lo logrado. La propia acción nos ha enseñado, nos enseña a diario, hasta qué punto es imprescindible actualizar



Urretxuko udala



erakusten ari gara euskalgintzan ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspena barneratzeko eta praktikan mamitzeko.

Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa.

Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak.

Badugu, bai, zer ospaturik aurtengo Euskararen Nazioarteko Egun honetan ere.

Ezagutzen ez genuen modu batean aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuak euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz bestekoak. Aktibatu zituen, baita ere, herri aginteak eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, strategiak eta diskurtsoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen.

Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktikoa bihurtzeko bidean jarri zen.

Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskaraldia berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzan, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian.

Ez da, baina, horretara mugatzen euskararen erabilera areagotzeko eginahala. Ezin inola ere horretara mugatu. Alorrez alor landu beharra dago erabileraren landarea, sendo haz dadin.

los procedimientos, renovarlos, vigorizarlos a base de imaginación. Y todo el conjunto de quienes nos implicamos en las labores propias de la euskalgintza estamos dejando muy patente nuestra disposición y entusiasmo a la hora de interiorizar y poner en práctica esa enseñanza.

Acordamos las acciones. Aproximamos los diagnósticos. Tejemos iniciativas compartidas. Evaluamos juntos el trabajo realizado. Perfeccionaremos codo con codo todo cuanto sea susceptible de mejora.

Y la sociedad ha respondido con fuerza, haciendo suyas las nuevas estrategias y formas orientadas a aumentar el uso del euskera de manera nítida y sostenida.

Tenemos, por tanto, qué celebrar también en este Día Internacional del Euskera.

El exitoso ejercicio social que el año pasado se llevó a cabo activó de forma nunca vista hasta entonces a las y los vascohablantes, sea cual fuere el grado en que lo son. Activó igualmente, y desde una nueva perspectiva, a los poderes públicos y a las más diversas organizaciones sociales. Y activó, sobre todo, una actitud proclive y dispuesta a la renovación de estrategias y discursos.

La actitud favorable al euskera dio, así, pasos hacia un compromiso eficaz y práctico.

Vislumbramos ya, en un horizonte cercano, la prolongación de aquella iniciativa. Reactivaremos el Euskaraldia, nuevamente en una atmósfera de acuerdo y colaboración, y el Día Internacional del Euskera del año próximo ocupará, cómo no, su lugar específico en el contexto de ese formidable ejercicio social.

No se limita a eso, sin embargo, el esfuerzo por aumentar el uso del euskera. De ninguna manera podría limitarse a eso. Es preciso trabajar en todos



Urretxuko udala



Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita.

Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarriaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalkuntzarik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik.

Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehen, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.

Bide berriak, modu berriak, arlo sozioekonomikoan ere.

Estrategia berriak, beraz. Konpromiso berriak. Konpromisoari erantzuteko molde berriak. Praktika berriak.

Azken batean, aldekatasun eraldatzailea da gure gizartea, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena.

Bertan du euskarak etorkizuna.

Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna.

Ongi etorri etorkizunera!

los ámbitos, a fin de que ese uso crezca con vigor.

Son muchos los ámbitos que exigen una labor específica, y entre todos ellos, uno se sitúa en el núcleo del devenir de la sociedad: la esfera de la economía, el trabajo y el consumo, motor principal de la vida social y ciudadana.

A nadie se le escapa la relevancia de la aportación recíproca entre el ámbito socioeconómico y el euskera. Porque somos muy conscientes de la inviabilidad de una normalización lingüística que no arraigue profundamente en el mundo del trabajo, la economía y el consumo.

Los principales agentes que operan en ese ámbito están dando pasos ciertamente sólidos. Y destaca entre ellos, sin duda alguna, la inserción del uso del euskera entre los elementos consustanciales a la más diversas organizaciones.

Nuevos caminos, nuevas formas, también en el ámbito socioeconómico.

Nuevas estrategias, por tanto. Nuevos compromisos. Nuevas maneras de responder al compromiso. Nuevas prácticas.

En definitiva, es una actitud, además de favorable al euskera, transformadora lo que nuestra sociedad está sustanciando por medio de la activación del conjunto de vascohablantes y euskaltzales.

En ello radica el futuro del euskera.

Un futuro que viene de la mano de nuevas vías y prácticas.

¡Bienvenidas, bienvenidos al futuro!

Irakurketa amaituta, eta gaia botoetara eramanda, honako hau erabaki da aho batez:

Finalizada la lectura, y sometida a votación, por unanimidad se acuerda:



Urretxuko udala

Bakarra.- Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala berrestea. Adierazpen horren testua akordio honen azalpenean transkribatu da.

9.- Erreguak eta galderak.

Ez dira ematen.

Eta beste gairik izan gabe, amaiera eman zaio batzarrari, akta honen hasieran zehazten den arratsaldeko bederatzia bost gutxi direnean, eta nik, Idazkariak, guzti horren fede ematen dut.



Único.- Ratificar la Declaración institucional Día Internacional del Euskera, cuyo texto se ha transcrito en el exponendo de este acuerdo.

9.- Ruegos y preguntas.

No se plantean.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se da por finalizada la presente sesión, siendo las veinte horas y cincuenta y cinco minutos del día que encabeza la presente acta, de todo lo cual doy fe.